

GEBren dokumentazio zentroko 2018ko martxoko artikuluko nabarmenak



GARCÍA JIMÉNEZ, Antonio, Victoria TUR-VIÑES y Yolanda PASTOR RUIZ. [Consumo mediático de adolescentes y jóvenes. Noticias, contenidos audiovisuales y medición de audiencias.](#)

Icono 14: Madrid: Icono 14, 2018 enero-junio **16**(1), 22-46. ISSN 1697-8293

Hainbat azterlan ikusirik konprobatu daiteke albisteek gazteen interesa pizten jarraitzen dutela, baina izan den aldaketaren ondorioz, orain formatu digitala nahiago dutela konbentzionala baino, eta hedabide sozialetatik eskuratzen dituztela albiste horiek; izan ere, erabiltzaile gazteak ubikutasun, irisgarritasun eta denboraren kontrol handiagoa dauka. Hala eta guztiz ere, gaurkotasanari buruzko informazioa ez da funtsezkoa gazteen eguneroko bizitzan, ez dituzte berriak bilatzen, aldizka kontsultatzen dituzte, gizarte-sareren baten bidez, haien gailu mugikorren jasotzen dituztenean; orduan klik egin eta denbora laburra ematen dute haien irakurtzen. Hedabide sozialetatik jasotzen duten informazioaren sinesgarritasunari dagokionez, ez dago adostasunik aztertutako azterlanetan: litekeena da sinesgarritasun gutxiago izatea kontsultatzen duten gazteentzat, baina hala ere kontsultatu egiten dute. Ikus-entzunezko hedabideetako albisteak kontsumitzen jarraitzen dute, batez ere telebistaz.

.....



TRESÁNCORAS, Aitana G., Carlos GARCÍA-OLIVA y José A. PIQUERAS. [Relación del uso problemático de whatsapp con la personalidad y la ansiedad en adolescentes.](#)

Salud y Drogas: Revista del Instituto de Investigación de Drogodependencias. San Joan de Alacant: INID, 2017, **17**(1), 27-36. ISSN 1988-205X

Gazteen ehuneko handi batek du whatsapp-aren erabilera problematikoa. Nortasunaren eta antsietatearen aldagaiek pisu handia dute erabilera horretan, batez ere adeitasunak eta egonkortasun emozionalak. Erabilera problematikoa duten gizonetako ezegonkortasun emozional handia eta adeitasun gutxi izaten dute, eta, emakumezkoen kasuan, berriro ere ezegonkortasun emozionala da erabilera hori gehien azaltzen duen faktorea; horrez gain, aspertuta daudelako erabiltzen dute mugikorra, edo tristurari aurre egiteko; okerrago jasaten dute deirik edo neuririk ez jasotzea. Gizonetako, berriz, tresna teknologiko moduan erabiltzen dute mugikorra. Urteetan aurrera egin ahala, erabilera problematikoa

